

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuan ofizialorde lanpostuak barne-sustapeneraren bidez betetzeko eskaintza handitzea

2020ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udaleko Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuan ofizialorde lanpostuak barne-sustapeneraren bidez betetzeko eskaintza handitzea onetsi zuen.

Une honetan, Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 1ean onetsitako barne-sustapenerako eskaintza gauzatzen ari da. Eskaintza onetsi zenetik orain arte zenbait lanpostu hutsik geratu dira udalaren lanpostuen zerrendan, eta proposatutako handitzeak (2 lanpostu) ez du berritze-tasarik kontsumitzen, barne-sustapenerako eskaintza baita. Gainera, eskaintzaren oinarriek berek jasotzen dute handitzeko aukera, zehazki, Vitoria-Gasteizko Udaleko lanpostuak barne-sustapenez betetzeko eskaintzaren 1.3 atalean.

Hori guztia kontuan izanik, handitzea onesten da, datu hauen arabera:

Lanpostuen zerrendan hutsik dauden bi ofizialorde dotazio (9001 lanpostua):

Matrikula: 612; hizkuntza eskakizuna: 2.a; derrigortasun-data: 00/00/00

Matrikula: 614; hizkuntza eskakizuna: 2.a; derrigortasun-data: 00/00/00

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 20an

Giza Baliabideen zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE